

**BUSTURIALDEKO GIZARTEAN PERTSONA MIGRANTEEN PARTAIDETZA
BULTZATEKO – LURRE HURRE ALKARTEAGAZ SINATUTAKO
LANKIDETZA HITZARMENAREN ALDAKETA**

KARMELE MUÑO A ARRIGAIN andreak, Bermeoko Udaleko idazkari akzidentalak, fede emoten dau

BATU DIRA

ALDE BATETIK: NADIA NEMEH SHOMALY And. (NAN: 72.311.504-X)
Bermeoko Udaleko alkate-udalburua.

BESTE ALDETIK: JOSU OJINAGA ANASAGASTI Jn. (NAN: 30.559.925-D),
Busturialdeko gizartean pertsona migranteen partaidetza bultzateko – Lurre hurre alkarteko presidentea.

PARTE HARTZAILEAK


NADIA NEMEH SHOMALY And., Bermeoko Udalaren ordeaz eta izenean, 2023ko abenduaren 20ko Tokiko Gobernu Batzarrea erabagitakoari jarraiki, eta Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dauzan Legeko 21.1.b) eta r) artikuluek emondako ahalmenaren arabera, eta

beste aldetik,

JOSU OJINAGA ANASAGASTI Jn., Busturialdeko gizartean pertsona migranteen partaidetza bultzateko – lurre hurre alkarteko (hemendik aurrera Lurre hurre alkartea) (IFZ G-95993788) presidente legez, horreek karguek emoten deusiezan ahalmenen arabera.

ADIERAZTEN DABE

Bermeoko Udalaren ahalmenen artean dagoela Immigrazio alorrean gizarteratze-politikak kudeatzea, atzerriartasunaren inguruko legeriarekin bat etorrita eta erakunde autonomikoekin lankidetzan, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 17.1.35) artikulugaz bat eta, baita be, Tokiko ekonomia- eta gizarte-garapena, eta tokiko enplegu-planak edo –politikak bideratzea eta Gazteria-politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea, lege bereko 17.1. artikuluen 25) eta 36) atalen arabera,



Eta Udalaren asmoa dala, gitxienezko derrigorrezko ahalmenetatik haratago joanda, hiru arlo horreekaz erlasionatutako ekimenak bultzatzea eta boluntariotza sustatzea, Bermeoko Udalariaren eta bere biztanleen onuran.

Hori horrela, Lurre hurre alkarteagaz alkarlanean, lur publikoen lanketaren bidez migranteen gizarteratzea lortzeko eta enplegarritasun errazteko proiektua garatzen jarraitu gura dau, Bermeoko Udalak Almika auzoan daukazan lurretan.

Bestalde, Lurre hurre alkarte, irabaz asmo bako alkarte da eta, bere helburuen artean, honeek daukaz: Busturialdeko gizartean pertsona migranteen partaidetza integrala bultzatzea, pertsona migranteen beharrianak asetzeko tresnak garatzea, pertsona migranteen ahalduntzean lan egitea, landa garapena Busturialdeko gizartearen eta pertsoa migranteen arteko lotura puntu bihurtzea, lehen sektorearen sustapena eta gertuko nekazaritza bultzatzea, eta elikadura subiranotasuna sustatzea.


Ondorioz, Bermeoko Udalak Almika auzoan daukaz erabilera bako lur batzuen lanketaren bidez, Bermeoko Udaleko 2023. urteko Aurrekontu Orokorrean aurreikusitako dirulaguntza izendunari esker, eta Almika Auzoan Udalak daukan basetxearen zati baten erabilpenari esker, urtebeteko iraupena izango dauen formakuntza, gizarteratze eta laneratze proiektua garatzeko alderdi bien lankidetzea arautzea da hitzarmen honen helburua.

ERABAKITZEN DABE

LEHENENGOA: Hitzarmenaren xedea.

Bermeoko Udalak Almika auzoan daukazan erabilera bako lur batzuen landaketaren bidez, Bermeoko Udaleko 2023. urteko Aurrekontu Orokorrean aurreikusitako dirulaguntza izendunari esker, eta baita be Almika auzoan udalak daukan basetxearen zati baten erabilerari esker, formakuntza, gizarteratze eta laneratze proiektua garatzea.

Horretarako Lurre hurre alkarteak urtebeteko iraupena izango duen formakuntza emongo deutse pertsona migrante ahuleneri. Hau da proiektu, inolako errekurtsio bako -ez materialak ez pertsonalak-, diru sarrera bako, etxebizitzabako eta ez lagun ez familiaren babesa ez daukeen migratzaileeri zuzendutakoa izango da.



CSV: 07E7000E588700S6B606W3O2J7



Urte horretan zehar, nekazal lanbidea ikasteaz gain, euskal gizartean ezinbestekoak jakezan gaiari inguruko formakuntza jasoko dabe, hala nola, herritarron eskubide-betebeharrak, gizarte antolaketa eta alkarrekintza sozialak edo indarrean dagoan legedia.

Bestetik, pertsona migratu honeek gure gizarte sarearen partaide integralizatea bultzatuko da, landa garapena eta baserri auzoak izanik lan-esparru nagusia.

Eta modu berean eta ezinbestean, bizikidetza erraztuko da, kulturartekotasuna eta herritartasun inklusiboa sustatuko da, elkarrekintza, gizarte-kohezioa eta alkartasuna bultzatuko dira, beti be aniztasunarekiko errespetutik.

Proiektu honegaz, zeharka, arrazakeria eta xenofobia, bazterkeria, migranteekiko aurreiritziak eta zurrumurruak gitxitzea espero da.

BIGARRENA: Formakuntza Programa.

Garatuko dan formakuntza programa zehatza, II. eranskinean jasotakoak izango da.

Programa aldatu ezker, eranskina aldatu beharko da, jagokon prozedura jarraituta egingo dana.

HIRUGARRENA: Lurre hurre alkarteak bete beharreko baldintzak:

- II. eranskinean zehaztutako programa garatzea zehatz.
- Jarduera hori irabazteko asmo barik garatzea, hau da, onuradunen ezelako kontraprestazio barik egitea.
- Hitzarmena sinatzen dan egunean tokiko zerga zorrak ordainduta daukiezala kreditatu beharko dabe. Bermeoko Udalak ziurtatuko dau puntu hau.
- Egunean egotea betebeharr fiskaletan eta Gizarte Segurantzian.
- Jardueran ezingo da ezelako sexuaren ziozko bereizkeria eragin. Zentzu berean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-diskriminazioan erori izanagatiko zigoro administrazio-arloko zigorra jaso ez izanaren aitortpena aurkeztu beharko da.

Nadia Nemech

[Signature]

CSV: 07E7000E588700S6B606W302J7



Agiri hau benetako dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E7000E588700S6B606W302J7

Sinadurea eta data

CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 29/12/2023 11:33:30

EXPEDIENTE ::
2023IDA_ERA_0195

Data: 27/11/2023

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea:

Erregistro nagusia



- f) Lurren landaketa proiektu honegaz zuzenean lotuta egingo da, eta ezingo da lur horreen bestelako erabilerarik egin, ezta beste inori erabiltzen itzi.
- g) Almikako basetxearen erabilera proiektu honegaz zuzenean lotuta egingo da, eta ezingo da basetxearen zati horretan bestelako erabilerarik egin, ezta beste inori erabiltzen itzi.
- h) Udalak egoki eristen dauzan ikuskapenak egin ahal izateko eragozpen edo trabarik ez ipintea.
- i) Udaletik jasoko dauen dirulaguntza behar dan moduan zuritzea.
- j) Garatuko dan proiektutik sortu leikezan erantzukizunak erantzuteko eta edukiera babesteko aseguru egokia(k) eukitzea. Poliz(ar)en kopia, hitzarmena sinatu eta gehienezko 10 laneguneko epean aurkeztu beharko da.
- k) Berehala jakinarazo behar dauz ondasunetan sortutako kalte, arazo edo irregulartasunak, baita beraren erru edo borondatearen kanpokoak badira be.
- l) Alkarteari egotzi leikiozan kalteak badagoz, alkarreak berak konpondu beharko dauz edo udalak konponduko dauz, ordezkoko exekuzino bidez, alkarrearen pentzura, emondako epean egingo ez baleu.
- m) Hitzarmenaren epea amaitu eta segiduan, proiektua garatzeko erabiliko diran ondasunak administrazioaren esku, libre eta hutsik itzi.
- n) Lurre hurre alkarrearen ekintzen publizidadean, Bermeoko Udalaren logoagaz agertzea.

LAUGARRENA: Bermeoko Udalak bete beharreko baldintzak

- a) Bermeoko Udalak, Administrazio Publikoen Ondarea arautzen dauan 33/2003 Legearen 93 eta 137.4.c) artikulugaz bat, jarraian zehaztutako lur eremuaren erabilera baimenduko dau, horretarako esleituko dan zuzenezko emakidaren bidez:

Kokapena: ALMIKE AUZOA, 13
 Katastro erreferentzia: CLAVE CAT: B405515L.
 Partzela: 219 Poligonoa: 8
 Azalera: 1.522 M2

Aitatutako lurrak, baimendutako erabilera eta jardueretarako askatasun osoz eta kanpoko ezelako oztopo barik erabili ahal izatea erraztuko dau lankidetzaz hitzarmen honek irauten dauen bitartean.

Proiektua modu egokian burutzen dala eta hitzarmen honetan jasotako betebeharrak betetzen dirala bermatzeko, Bermeoko Udalak behar besteko

Nadia Nench

[Signature]

CSV: 07E7000E588700S6B606W3O2J7



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
 Kodea:
 07E7000E588700S6B606W3O2J7

Sinadurea eta data
 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 29/12/2023 11:33:30

EXPEDIENTE ::
 2023IDA_ERA_0195
 Data: 27/11/2023
 Lekua: Bermeon
 Erregistro unidadea:
 Erregistro nagusia



ikuskapenak egin ahal izango dauz eta, beharrezkoa dan kasuetan, agindu zehatzak emon ahal izango dauz, hitzarmenaren baldintzak bete daizan. Agindu horreek beteko ez balira, hitzarmena bertan behera izteko erabagia hartuko dau udalak, alkarteari entzunaldia emon eta gero.

- b) Bermeoko Udalak, Administrazio Publikoen Ondarea arautzen dauan 33/2003 Legearen 93 eta 137.4.c) artikulagaz bat, jarraian zehaztutako eraikinaren erabilera baimenduko dau, horretarako esleitzen zen dan zuzenezko baimenaren bidez:

Eraikina: Almikako basetxea
Kokapena: ALMIKE AUZOA, 13
Katastro erreferentzia: N9813954P, N9813055A
Partzela: 96
Pologonoa: 907
Planoa. 3935
Azalera: 167,00 m2.

Lurre Hurre Elkartek Almikako basetxearen erabilera konpartitua egingo dau. Bere erabilera eta ardurapean egongo da basetxearen beheko parteko biltegia eta komuna. Pasilloaren erabilera eta ardura konpartituta izango da. Aitatutako eraikina, baimendutako erabilera eta jardueretarako askatasun osoz eta kanpoko ezelako oztopo barik erabili ahal izatea erraztuko dau, erabilera konpartitua izango bada be, lankidetzaz hitzarmen honek irauten dauen bitartean.

Basetxean, besteak beste, nekazaritzaga eta migratzaileen inguruko formazioak, eta hitzaldiak emongo dira. Horretaz gain, hitzarmen honetan jasotakoa burutzeko beharrezkoak diran bestelako ekintzak garatu ahal izango dabez bertan.

Basetxearen erabilera egokian burutzen dala eta hitzarmen honetan jasotako betebeharrak betetzen dirala bermatzeko, Bermeoko Udalak behar besteko ikuskapenak egin ahal izango dauz eta, beharrezkoa dan kasuetan, agindu zehatzak emon ahal izango dauz, hitzarmenaren baldintzak bete daizan. Agindu horreek beteko ez balira, hitzarmena bertan behera izteko erabagia hartuko dau udalak, alkarteari entzunaldia emon eta gero.

BOSGARRENA: Udalak emongo dauen dirulaguntzaren zenbatekoa.



Aurreko atalean zehaztutakoez gain, Bermeoko Udalak, bere Aurrekontu Orokorrean aurreikusita sei mila euro (6.000 €) ordainduko deusoz Lurre hurre alkarteari. Diru kopuru hau zatika ordainduko da, 2023. urte barruan, aurrekontuaren 008.00.2321.0.480.01.07 partidaren pentzura, hain zuzen. Ordaintzeko modua honakoa izango da: hitzartutako kopuru osoaren % 80, hau da, 4.800 € hitzarmena sinatu eta gero, eta gainontzekoa, 1.200 €, dirulaguntza justifikatzen danean.

Dirulaguntza zatiaren ordainketa aurreratua egitearen arrazoia, II. eranskinean zehaztutako jarduerak garatu ahal izateko eta gitxieneko diru-kopurueri aurre egiteko Lurre hurre alkartearen likidezia faltan oinarritzen da.

Dirulaguntza zati horren aurrerapena bermatzeko ez da beharrezkoa izango bermea ipintea irabazi-asmorik gabeko erakunde gizarte ekintzarako jardura burutzen duena izateagatik (42.2.d) artikulua Dirulaguntzen Erregelamenduarena. Gainera, aurreko urtean, II. eranskineko programa garatu izan dauzala kontutan eukita, ez dalako aurreikusten jasotako laguntza bere helburura ez bideratzea edota bestelako ezertan xahutzea.

SEIGARRENA: Dirulaguntzaren ezaugarriak.

Dirulaguntzak borondatezkoak eta aldi baterakoak izango dira. Baten emoteak ez deus derrigortasunik eragingo Bermeoko udalari, eta ez dau beste urte batzuetarako eskubiderik emoten ez aurrekaririk ezarten.

Dirulaguntza ezin izango da gehitu ez berrikusi (ezin da erreklamaziorik egin).

ZAZPIGARRENA: Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

Diruz laguntzeko gastuak izango dira zalantzarik gabe beharrezkoak direnak hitzarmen honetan araututako programa betetzeko.

ZORTZIGARRENA: Udalaren betekizunak, diru publikoaren erabilerari jagokonez.

Bermeoko Udalaren, bere aldetik, eta Diru-laguntzak arautzen dauzan 38/2003 Legearen aginduari jarraituta, honako eginkizunak beteko dauz:




CSV: 07E7000E588700S6B606W3O2J7



- a) Emondako diru-laguntzearen kontrol egokiak egin, diru-laguntza oinarritzen daben helburua eta egintzak benetan burutu dirala ikusi ahal izateko.
- b) Lege berari jarraituta, diru-laguntzearen oinarriak bete ez dirala ikusten bada edota ez dirala era egokian justifikatu ikusi ezker, desbideratutako diru publikoa berreskuratzeke, egokiak diran prozedura eta espedienteak izapidetuko dauz, hamargarren atalean adierazotakoagaz bat.

BEDERATZIGARRENA: Bestelako sarrera edo dirulaguntzen bateragarritasuna.

Jasotako dirulaguntza lortu daitekezan bestelako sarrera publiko zein pribatuekatz bateragarriak izango dira, beti be gain-finantzaketarik ez dagoen bitartean.


Horrela izanda Lurre hurre alkartea behartuta egongo da bere finantzaketarako lortzen dauzan bestelako sarrera eta dirulaguntzen barri emotera eta, danatara %100etik gorako finantzaketarik lortzen badau, Bermeoko Udalari horren barri emoten, gain-finantzatutako kopuruak berreskuratzeke prozedurari hasiera emon daiezan.

Horrela egingo ez balitz, zigorra ipintzeko arrazoia izango litzake, itzuli beharreko kopurueri lege interesak aplikatzearen kalte barik.

HAMARGARRENA: Jasotako diruaren justifikazioa.

Udalaren dirulaguntzearen bigarren zatia kobratu ahal izateko, dirulaguntza justifikatu beharko da 2024ko urtarrilaren 10a baino lehen. Horretarako, agiri honeek aurkeztu beharko dira:

1. Erakunde onuradunaren legezko ordezkariak sinatuta txostena non agertzen dan baldintzak betetzea justifikatzen dauen ekintza txostena. Bertan adierazi behar dau, egindako jarduerak eta jasotako emaitzak ezarritako adierazleen arabera:
 - Plazaren kostua: guztira emondako dirua/ parte-hartzaileen kopurua.
 - Urtean zehar egindako jarduera kopurua.
 - Urtean egondako parte-hartzaile kopurua/aurreko urtean egondako parte-hartzaile kopurua.



2. Jardueren sarrera eta gastuen balantzea aurkeztu beharko da, eta bertan agertu beharko da ze neurri ekonomikogaz lagundu diran ekintzak aurrera eroateko (kuotak, bestelako dirulaguntzak, etab.) eta gastuen jatorria (materialeak, garraio gastuak, ...). Puntu honek batera faktura originalak edo fotokopia konpultsatuak aurkeztu behar dira. (Udaleko Berhaz bulegoan konpultsak egiten dira).
3. Gastuen ganeko faktura originalak edo fotokopia konpultsatuak aurkeztu behar dira, eta baita be faktura horreek ordaindu izanaren egiaztariak (Udaleko Berhaz egiten dira konpultsak). Egiaztapena egin eta gero, originalak itzuli egingo dira. Ez da onartuko beste gastu batzuen justifikaziorik, horreek ez badabe balio dirulaguntzearen helburuak lortzeko.

Fakturak, fakturazinoen betebeharrak arautzen dauan azaroaren 30eko 1619/2012 Errege Dekretuak xedatutako bete beharko dabe.

Emondako diru guztia gastatu ez bada, justifikazinoa eginda, itzuli egin beharko da, baita neurgarriak ez betetzeagatik zehazten diranak ere, Dirulaguntzen Lege Orokorren 36.artikuluaren eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera.

Erakunde onuradunak jaso dauen laguntza osorik edo zati batean itzuli ahaliko dau, borondatez, horixe egiteko eskatu aurretik. Eskaera ebatzi egingo da eta, gero, erakundeari jakinarazoko jako, ordainketa egiteko epea eta modua adieraziz. Hori guztia, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 90.artikuluaren betez.

Dokumentazioaren aurkezpena egiterakoan ez bada aurreko puntuetan eskatutakoa zehatz beteten, interesdunak 10 eguneko epea izango dau akatsak zuzentzeko. Denpora tarte horretan ez badira zuzentzen, eskariari uko egiten jakola ulertuko da.

Agiri honek ez aurkeztea dirulaguntzea ukatzeko eta ordaindutako lehenengo zatia itzultzeko zioa izango da.

Lehenengo zatia itzuli behar izatekotan, lege interesak gehituta itzuli beharko da.

HAMAİKAGARRENA: Euskerearen erabilera.




CSV: 07E7000E588700S6B606W302J7



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E7000E588700S6B606W302J7

Sinadurea eta data
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 29/12/2023
11:33:30

EXPEDIENTE ::
2023IDA_ERA_0195
Data: 27/11/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



- Herriaren hizkuntza ezaugarriak kontutan eukita, Publizitatea eta komunikazio ekintzak euskeraz egingo dira bai ahoz, zein idatziz: argitaratzen diren programa, iragarki, ohar, kartel eta gainontzekoak euskeraz egingo dira. Euskerea ez dan beste hizkuntzaren bat erabiltekoan publizitate eta komunikazio ekintzetan, lehentasun osoa eukiko dau euskereak (3-1).

- Euskerearen kalitatea bermatu beharko da aitatutako ahozko eta idatzizko ekintza guztietan, eta udaleko Euskera Sailaren laguntza izango dau Lurre hurre alkarteak hizkuntza aholkularitza eta laguntza behar dauenean.

HAMABIGARRENA: Debekatutako jarduera sexistak.

- Debeku da pertsonen sexuan oinarritzen den bereizkeria oro, zuzeneko zein zeharkakoa, edozein delarik ere hartarako erabilitako era.

- Ezin izango da adierazi, pertsonak, sexu batekoak edo bestekoak izateagatik, giza duintasun gutxiago edo gehiago dutela, ez eta objektu sexual soilak direla ere. Orobat, ezingo zaie zabalkundea eman emakumeen aurkako indarkeria justifikatu, horri garrantzia kendu edo horretara bultzatzen duten edukiei.

HAMAHIRUGARRENA: Hitzarmenaren jarraipena.

Hitzarmen honetan araututako lankidetzaren ebaluatu eta hitzarmenaren jarraipena egiteko erakunde bakoitzeko ordezkari bat izendatuko da eta honek izango dira: Xabi Ortuzar Butron jauna Bermeoko Udaletik eta Josu Ojinaga Anasagasti jauna Lurre hurre alkartetik

Hartu beharrekoak erabagiak edota egin beharreko interpretazioak adostasunez egingo dira eta, adostasunik lortu ezingo balitz, hitzarmena bertan behera izteko arrazoia izango da.

HAMALAU GARRENA: Arau-hauste lege hartuko dira jokabide honek:

- 1.- Hitzarmen honetan jasotako betebeharrak ez betetzea.
- 2.- Jasotako dirulaguntzak ez justifikatzea horretarako emondako epean.
- 3.- Eskuratutako bestelako sarreraren barri ez emotea, bordin publikoak zein pribatuak izan.
- 4.- Gain-finantzaketarik balego, horren barri ez emotea edota itzuli beharreko kopuruak ez itzultzea.



CSV: 07E7000E588700S6B606W302J7



Arau hauste honeek, onartutako dirulaguntza murriztea ekarri ahal izango dau zigor moduan, egindako ez betetzeen garrantziaren arabera kalkulatu dana, ez bada ez betetzeen larritasunagaitik dirulaguntza osorik itzultzea erabagitzen dala.

Dirulaguntza osorik itzultzeko zigorrak, hurrengo urteetan dirulaguntza barriak eskuratzeko ezintasuna suposatuko dau.

Zigor horreek ipinteko, 38/2003 legeak aurreikusitako prozedura jarraituko da eta, erabagia hartu orduko, interesdunari entzunaldia emoten jakola bermatuko da.

HAMABOSGARRENA: Hitzarmena ez betetzearen bestelako ondorioak.

Hitzarmen honetan jasotakoa nabarmen beteko ez balitz, eta hitzarmenaren exekuzino egokia kolokan ipiniko baleu, hitzarmena bertan behera izteko arrazoia izango da, aurreko atalean zehaztutako zigorrak ipinteko udalaren ahalmenaren kalte barik.

Edozein kasutan, ahal dan heinean hitzarmenaren exekuzinoagaz jarraitzeko ahalegina egingo da.

HAMASEIGARRENA: Hitzarmenaren iraunaldia.

Hitzarmenaren iraunaldia sinatzen denetik urtebetekoa izango da.

HAMAZAZPIGARRENA: Hitzarmenaren izaera administratiboa.

Hitzarmen honen izaera administratiboa da. Ondorioz, honen aplikazino edo interpretazinoan hartzen diran erabagiak bide administratiboari amaiera emongo deusez eta zuzenean aplikagarriak izango dira, Administrazioarekiko Auzibidean errekurritzeko eskubidearen kalte barik.

HAMAZORTZITZIGARRENA: Legedi aplikagarria.

Hitzarmen honeri honako legedia aplikatuko jako:

1. Herri Administrazioen Prozedura Administratibo Orokorraren 39/2015 Legea



CSV: 07E7000E588700S6B606W302J7



2. Sektore Publikoaren Erregimen Juridikoaren 40/2015 Legea
3. Administrazio Publikoen Ondarea arautzen dauan 33/2003 Legea.
4. Toki Entitateen Ondasunen Erregelamendua onartzen dauan 1372/1986 EDa.
5. Dirulaguntzak arautzen dauzan 38/2003 Legea.
6. Dirulaguntzen Legearen Erregelamendua onartzen dauan 887/2006 Errege Dekretua.
7. Zuzenbide administratiboko arau orokorrak.
8. Zuzenbide pribatuko arau orokorrak.

Hori horrela, hitzarmenean aurreikusten ez dan guztirako, edozein zalantza argitu eta hitzarmena interpretatzeko, aitatutako legediak aurreikusitakoa jarraituko da zehatz.

HEMERETZIGARRENA: Hitzarmenaren argitaratzea.

Hitzarmen hau eta onarpeneko erabakia Dirulaguntzen base nazionalen argitaratuko dira, sektore publikoa arrazionalizatzeari eta administrazioa erreformatzeko beste neurri batzuei buruzko irailaren 16ko 15/2014 Legeak aldatutako Dirulaguntzen Lege Orokorraren 20.artikulua betez.

Eta honela ager daiten honako hau emoten dabenek, agiri hau onartzen dabe, lau ale sinatuz, eragin bakarrerako.

BERMEOKO UDALEKO
ALKATEA

Nadia Nemeh Shomaly



LURRE HURRE ALKARTEKO
LEHENDAKARIA

Josu Ojinaga Anasagasti



Karmele Muñoa Arrigain
IDAZKARI AKZIDENTALA

